

LAB

Lan osasuna

Informazio sindikala

Informazio sindikala

**Urtarrila
2007**estatus politikoa
Orain

Aldi baterako ezintasuna: Eskubide murrizketa berria

2006ko abenduaren 15ean, **Araba, Bizkaia** eta **Gipuzkoan** (eta urtarriletik aurrera **Nafarroan** berresteko) Gizarte Segurantzako Lege Orokorreko 128.1 eta 131 bis artikulua indarrean sartu dira. Estatuaren 2006ko Aurrekontuen Legean (30/2005 legea) jasotako erreforma honek Aldi Baterako Ezintasun egoeran (ABE) dauden langileei eskubide galera ekarriko die.

Langileoi gure baja garaia murriztuko zaigu eta, ondorioz, bizkortzeko epea laburtuko zaigu. Hemendik aurrera **Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN)**, irizpide ekonomikoen arabera, gure egoeraren inguruan **erabakiko** du **12. hilabetetik** aurrera, eta ez orain arte bezala, lehen arretako langile medikoekin harremanetan zegoen pertsonak, hau da, ikuskaritza medikoak.

Erreformak, **30 hilabetekoa** zen gehienezko baja **12 gehi 6 (luzapena ematen bada) hilabetera murrizten** du. Hortaz, **12. hilabetetik** aurrera **GSINek** erabakiko du AEB luzatuko duen edo kasua tribunal mediko batera, gaur egun, **Ezintasunen Balorazio Taldea (EBT)** deitua, bidaliko duen. **Hiru hilabetean** gehienez (garai honetan ez dago kotizatzeke derrigortasunik) EBTEk erabaki behar du **ezintasun iraunkorra** (6 hilabetera berriki daiteke) emango duen, edo **ondorio ekonomikoetarako alta** medikoa emango duen, hau da, bajan jarraitu baina eurorik jaso gabe. Alta medikoa jaso eta hurrengo 6 hilabeteen barruan, GSIN izango da gaixotasun beragatik edo antzekoagatik izandako bajak eragin ekonomikoak izango dituen ala ez erabakiko duen bakarra, hau da, ez dio axolarik artatzen gaituzten lehen arretako sendagileek zer dioten.

EAEko eta **Nafarroako** gobernuen **menpekotasun eta isiltasuna** salatu nahi ditugu. Gaur egun Osasun Sailen menpe dauden ikuskaritza medikoek dauzkaten eskumenak lapurtzeko aukera ematen ari zaio Madrili, eta hau guztia **CCOO** eta **UGT** sindikatuen laguntzarekin egin dute.

Bajen iruzur susmoa da alor ezberdinetan erreforma zuritzeko erabili den **aitzakia** nagusia. Laneko baja egoeran izango direnak iruzurgile izateko susmopean izango dira, eta, horregatik, kontrolpean. Baina **iruzurra zenbatzea** eta honek ABEn prestazio ekonomikoan duen pisua inoiz ez da argiro erakutsi: hurbilketak egin dira, teorizatu da, usteak egin dira, baina ez da objektibizatu egin.

ABE, baja, sendagileak pazienteari egiten dion **balorazio medikoaren ondorioa** izan behar da. Gainera, kontuan izan behar dugu, eta ez dugu ahaztu behar, ABE **plan terapeutiko** baten **parte dela**, sendagileek agintzen dituzten baliabide terapeutikoen artean bat gehiago besterik ez delako, hots, beste edozein sendagai bezalakoa delako.

Ikus ditzagun lasaiago erreformaren ondorioak:

1.- GSINren ALDEKO ESKUMEN BERRIAK OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN MEDIKUNTZA LANGILEEN KALTETAN.

Aurre ratu dugun bezala, 12 hilabeteko gehienezko epea amaituta, gertakizuna dena dela ere (ohikoa ala lanekoa), GSIN izango da horren gaineko kontrolaren eskumena izango duena. Horrela bada,

behin 12 hilabeteak igarota Ezintasunen Balorazio Taldeak G SINren Lurralde Zuzendaritzari aukera hauetariko bat eskaini beharko dio:

1.- Gehienez 6 hilabetez bajaren luzapena onartzea (azterketa mediko berri-rako data adieraziz).

2.- Ezintasun Iraunkorraren espedientea hasia erabakitzea.

3.- Ondorio ekonomikoari dagokienez, alta ematea.

4.- Alta ondorengo 6 hilabeteetan gaixotasun berak edo antzekoak eragindako ABE eragin ekonomikoak dituen edo ez erabakitzea.

2.- ABE KONTROLATZEKO G SINren KONTROL PROZEDURA

1.- Unitate Medikoen jarduerak:

- **ABEren 9. hilabetea: Aurretiko Azterketa Medikoak G SINren afiliatuak diren ABEren hartzaileei.**

- Historia kliniko-laborala prestatzea.
- Proba eta txosten osagarriak bilatzea, Ezintasunen Balorazio Taldeak dagokion proposamena egin dezan.
- Sendatzeagatik edo hobekuntzagatik alta edo Ela proposatzeko aukera, 12. hilabetera arte itxaron gabe alta ematea baztertzeko.

- **ABEren 11. hilabetea: ABEren ebaluazio medikoaren txostena egiteko azterketa medikoa. Txosten honen ezaugarriak:**

- Azterketa egindako sendagileak sinatua.
- Epai kliniko-laborala emango du.
- Sendagileak Ezintasunen Balorazio Taldeari emango dio.

2.- Ezintasunen Balorazio Taldearen proposamena:

- ABEren ebaluazio medikoaren txostena eta dokumentazio kliniko-laboral guztia aztertuko ditu.
- Loteslea ez den derrigorrezko proposamena egin eta Lurralde Zuzendaritzari bidaliko dio:

- Luzapenaren onarpen zehatza, azterketa mediko berri-rako data adieraziz.

- Agortzeagatik alta eta Ezintasun Iraunkorraren espedientea hasteko proposamena.

- Sendatzeagatik alta medikoa ABEren prestazio ekonomikoaren ondorioei dagokienez.

3.- Lurralde Zuzendaritzak espresuki erabakiko du, era exekutiboan, eta erabakiaren kontra Gizarte Arloko Epaitegietara jotzeko aukera egongo da.

3.- G SINren ERABAKI POSIBLEAK

1. AUKERA. ABEren luzapena onartzea (6 hilabete gehienez):

• **Baja ohiko gertakizunaren ondorio bada:**

- Bakarrik G SINren eskumena da.
- Hartzaileak baja-saria jasotzeko ebazpena derrigorrean.
- Baja-saria zuzenean Erakunde Kudeatzaileak edota erakunde laguntzaile erantzule batek ordainduko du.
- Sendatzeko denbora zehatza luzatzea onartzea (6 hilabete gehienez).
- Baja-saria jasotzeko ez dira baieztapen agiriak behar.
- Luzapenak irau bitartean kotizatzea derrigorrezkoa da.

• **Baja lan gertakizunengatik bada:**

- Mutuek G SINri luzapena eskatzeko eskumena dute. G SINek Mutuari erantzuten ez badio: **ALDEKO ISILTASUNA 5 EGUNeko EPEAN**
- Baja-saria zuzenean Erakunde Kudeatzaileak edota erakunde laguntzaile erantzule batek ordainduko du.
- Sendatzeko denbora zehatza luzatzea onartzea (6 hilabete gehienez).
- Baja-saria jasotzeko ez dira baieztapen agiriak behar.
- Luzapenak irau bitartean kotizatzea derrigorrezkoa da.

2. AUKERA Agortzeagatik alta eta Ezintasun Iraunkorraren espedientea hasia:

• **Behin betiko ezintasun lesio objektiboak:**

- **Gabeziarekin:** ezintasuna zehaztu eta dagokion diru-saria onartzen da.
- **Gabeziarik gabe:** ezintasuna maila zehaztu gabe ukatzen da. Ebazpenaren egunean luzapena irautzen da.

• **Behin betikoak ez diren ezintasun lesioak:**

- **Gabeziarekin:** ezintasun iraunkorraren diru-saria zehaztu eta onartzen da, hau 6 hilabetean behin edota epe handiago batean berrikusten da.
- **Gabeziarik gabe:** gabezia maila zehaztu eta 6 hilabeterako diru-saria jasotzeko eskubidea onartzen da.

3. AUKERA. Ondorio ekonomikoari dagokienez alta medikoa:

- Honen ondorioz, diru-saria jasotzeko eskubidea ebazpenaren dataren hurrengo egunean irautzen da.
- Langileak jarraitu dezake tratamendu medikoa eta osasun sistema publikoaren baieztapen agiriak jasotzen, lanera ez bertaratzea zuzituz.
- Hurrengo 6 hilabeteetan patologia beragatik edota antzeko batengatik ABE bat abiaraztean ondorioak. Holako bat hasiz gero, ez da egongo babes ekonomikorik.

Hurrengo sei hilabeteetan baja berria gertatzen bada, G SIN izango da **GAI-XOTZE BERRIA** den ala ez erabakiko duena eta horren arabera honakoa erabakiko du:

- Luzapena, edo
- Ezintasun iraunkorraren espedientearekin hasi, edo
- Eragin ekonomikorik gabeko baja